

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 1669

*IRAGARKIA, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita ingurumen-baimen bateratuaren eta teknika erabilgarri onenen dokumentazio konparatiboaren funtsezko alaketarako proiektua, Litografía Alavesa, S.A. enpresak aurkeztu duena metalak tratatzeko eta estaltzeko Oyón-Oiongo udalerrian.*

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ezartzen du ingurumen-baimen bateratua izan behar dela 1. eranskinean jasotako jardueretako batzuk egiten diren instalazioetan eraikuntza-, muntatze-, ustiapen- edo lekualdatze-lanak egiteko edo horietan funtsezko alaketaren bat egiteko.

Ingurumen-baimen bateratuaren xedea da atmosfera, ura eta lurzorua ez kutsatzeko edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura murriztu eta kontrolatzeko baldintzak ezartzea, kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema integratuak ezarriz; horrela, ingurumen osoa ahalik eta hoberen babestu ahal izango da.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamenduak –zeina, aldi berean, industriako emisioei buruzkoa baita– (urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak onartu zuen) 16. eta 16. artikuluetan arautzen du baimenean bertan eta ingurumen-baimen bateratua berrikusteko prozeduran funtsezko alaketak egiteko prozedura sinplifikatua; gutxienez hogeit eguneko epea ezartzen du aldatu den hori jendaurrean erakusteko.

Metalak tratatzeko eta estaltzeko jardueraren kasuan, epealdi bakarrean jarri behar dira jendaurrean ingurumen-baimen bateratuaren funtsezko alaketarako proiektua eta ingurumen-baimen bateratuaren berrikuspena eta funtsezko alaketa izapidetzeko teknika erabilgarri onenen dokumentazio konparatiboa.

Adierazitako guztiagatik, Litografía Alavesa, S.A. enpresaren AAI00085\_REV\_2023\_001 espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun baliioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki deritzeten alegazioak eta oharrak.

Jendaurreko izapidean jarriko den instalazio-espedientea Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) argitaratuko da, jendeak eskura izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 20a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,  
JAVIER AGIRRE ORCAJO.